EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

*Lehenengo Lehendakariordea eta Segurtasuneko Sailburua*
*Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad*

PRESIDENTE ESTIMATUA:

Lehenik eta behin, esker ona adierazi nahi dizut buru zaituen Batzordeak polizia-jardueraren kontrolen neutraltasunean eta objetibotasunean herritarren konfiantza eta zilegitasuna indartzeko egiten duen lanarengatik.

Zeregin hori betez, aurtengo maiatzaren 4an Batzordeak 1/2022 txostena aurkeztu zuen, sailburu honek aurtengo maiatzaren 18an, Bilboko San Frantzisko auzoko Mariaren Bihotza plazan 2021eko ekainean bi pertsona atxilotu izanaren inguruan, egindako esku-hartze eskaerari erantzunez. Aipatutako eskaera hori bideratzeko unean Bilboko 10. zenbakiko Instrukzio Epaitegiaren ikerketa judizialaren pean zegoen 54/2022 Aurretiazko Eginbideetan, Bilboko 7. zenbakiko Instrukzio Epaitegiko arduradunak 2022ko urtarrilaren 10eko Autoaren bidez eskatuta lekukotza hartzearen ondorioz.

ESTIMADO PRESIDENTE:

En primer lugar, quiero expresarle mi reconocimiento por la labor que la Comisión que Ud. preside desarrolla con el propósito de reforzar la legitimidad y confianza de la ciudadanía en la neutralidad y objetividad de los controles sobre la actividad policial.

En cumplimiento de dicha labor, el 4 de Mayo del año en curso, la Comisión emitió su informe 1/2022 en respuesta a la solicitud de intervención realizada por este Consejero el 18 de febrero del mismo año, en relación al desarrollo de la detención de dos personas, ocurrida en el mes de junio de 2021, en la plaza Corazón de María del barrio de San Francisco de Bilbao, y que en el momento de cursar la referida solicitud estaba siendo objeto de investigación judicial, en concreto, por parte del Juzgado de Instrucción número 10 de Bilbao en la causa Diligencias Previas 54/2022, a raíz de la deducción de testimonio interesada por el responsable del

Juzgado de Instrucción número 7 de Bilbao mediante Auto de fecha de 10 de enero de 2022.

Aipatutako txostenean, kasuaren inguruabarrak, Batzordeak egindako jarduketak, polizia-jarduketaren ebaluazioaren eraginetarako garrantzizko gaiak eta azpian zeuden arazoak aztertu ondoren, zuk ordezkatzen duzun Batzordeak neurri zuzentzaile batzuk proposatu zituen.

En el precitado informe, tras analizar las circunstancias del caso, las actuaciones realizadas por la Comisión, las cuestiones relevantes a efectos de la evaluación de la actuación policial y los problemas subyacentes, se propone por parte de la Comisión a la que Ud. representa una serie de medidas correctoras.

Joan den urriaren 10ean egindako bileran hitzeman nuen bezala, Batzordeari jakinarazten dizkiot Segurtasun Sailak, 1/2022 txostena kontuan hartuta, gauzatu dituen iraganeko, oraingo eta etorkizuneko jarduketak. Jarduketa horiek jarraian aipatzen ditut proposatutako bost neurri zuzentzaileen hurrenez hurren.

Tal y como me comprometí en la reunión mantenida el pasado 19 de octubre pongo en conocimiento de la Comisión las actuaciones pasadas, presentes y futuras que ha llevado a cabo el Departamento de Seguridad en consideración al informe 1/2022; actuaciones que enumero a renglón seguido de forma correlativa a las cinco medidas correctoras propuestas.

1.- Ertzaintzaren Zuzendaritzak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari eskatu dio Ertzaintzako eskala eta kategoria ezberdinetako sarbide-ikastaroetako formakuntza-edukiak berrikus ditzala, kode deontologikoari eta jardunbide egokiei buruzko polizia-formakuntza, bai eta polizia-jarduketa batean inplikatuta dauden pertsonen errespetu-falten aurrean autokontrola indartzeko beharrari buruzkoa ere, indartzeko.

1.- La Dirección de la Ertzaintza ha solicitado a la Dirección de la Academia Vasca de Policía y Emergencias la revisión de los contenidos formativos de los cursos de ingreso en las diferentes escalas y categorías de la Ertzaintza, con el fin de reforzar la formación policial sobre el código deontológico y las buenas prácticas, así como sobre la necesidad de fortalecer el autocontrol frente a las faltas de respeto de personas inmersas en una actuación policial.

Eskaera horren ondorioz, 2022ko abenduaren 20an hitzarmen bat sinatu zuten Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) Giza

Como consecuencia de dicha petición, se ha suscrito el pasado día 20 de diciembre de 2022 un Convenio entre la Academia Vasca de Policía y Emergencias y la Universidad del País Vasco (EHU-UPV), para el

Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco katedra garatzeko.

Hitzarmen horrek bere helburuen artean ditu giza eskubideen arloan programak garatzea eta prestakuntzan laguntzea, demokrazia, Zuzenbide Estatua eta oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen babesa ordezkatzen dituzten oinarrizko printzipioetan oinarrituta.

Alde horretatik, eta Poliziaren Europako Kode Etikoan aurreikusitakoari jarraituz, indartu egingo da giza eskubideen kulturari buruzko formakuntza praktikoa, eta, bereziki, indarra erabiltzeari eta horren mugei buruzkoa, nagusiki Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean eta dagokion jurisprudentzian ezarritako printzipioei dagokienez.

Horretarako, ekintza hauek barne hartuko dituzten plan eta programa batzuk gauzatuko dira: a) giza eskubideei buruzko formakuntza-edukiak diseinatzea, prestatzea edota eguneratzea, bai Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak antolatutako formakuntza-ekintzetan bai eskala eta kategoria ezberdinetan sartzeko prestakuntza-ekintzetan, espezializazio-ikastaroetan, eguneratze- eta hobekuntza-ikastaroetan eta karrera profesionalean, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako funtzionarioei zuzenduta, modalitate presentzialean nahiz online, egiten direnak; b) giza eskubideen arloan prestakuntza presentziala nahiz telematikoa, edo tutoretza, ematea, bai Polizia eta Larrialdietako

desarrollo de la Cátedra Unesco de derechos humanos y poderes públicos.

Dicho Convenio tiene entre sus objetivos desarrollar programas y contribuir a la formación en materia de derechos humanos, con base en los principios fundamentales que representan la democracia, el Estado de Derecho y la protección de los derechos fundamentales y las libertades públicas.

En tal sentido, siguiendo lo previsto en el Código Europeo de Ética de la Policía, se va a proceder a intensificar la formación práctica relativa al conjunto de la cultura de los derechos humanos y, en particular, al empleo de la fuerza y sus límites con respecto a los principios establecidos principalmente en el Convenio Europeo de Derechos Humanos y la jurisprudencia correspondiente.

Para ello se van a realizar una serie de planes y programas que incluirán las siguientes acciones: a) Diseño, elaboración y/o actualización de los contenidos formativos en materia de Derechos Humanos tanto de las acciones formativas organizadas por la Academia Vasca de Policía y Emergencias como de los cursos de formación para el ingreso a las diferentes escalas y categorías, cursos de especialización, cursos de actualización y perfeccionamiento, carrera profesional, dirigido a los funcionarios y funcionarias de los Cuerpos de Policía del País Vasco, tanto en modalidad presencial como online; b) Impartición de la formación presencial y/o telemática, o la tutorización, en su caso, en materia de Derechos Humanos, tanto de las acciones

Euskal Akademiak antolatzen dituen prestakuntza-ekintzetan bai eskala eta kategoria ezberdinetan sartzeko prestakuntza-ekintzetan, espezializazio-ikastaroetan, eguneratze- eta hobekuntza-ikastaroetan eta karrera profesionalean, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako funtzionarioei zuzenduta egiten direnak; urtean gutxienez 400 pertsonako formakuntza presentziala; c) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako funtzionarioei, hala eskatzen dutenei, zuzenduta, antolatzen dituen formakuntza-ekintzetan edo -ikastaroetan giza eskubideen gaiari buruz edozein modalitatetan, presentzialean nahiz online, ematen den formakuntzaren ebaluazioa eta jarraipena egitea, hala badagokio.

Aldi berean, lankidetza-esparru bat jarri da abian formakuntza-mailan RIGTHS INTERNACIONAL erakundearekin, XXXI. promozioaren sarrera-ikastaroaren programan sartzeko formakuntza-modulu bat diseinatu dezan, gerora Ertzaintzako kide guztiei pixkanaka emateko izango dena.

2-. Ertzaintzaren Zuzendaritzak eskatuta, 20 eta 26 Zerbitzu Aginduak, biak Atxiloketa Prozesuari buruzkoak, aldatu dira, eta horren barruan baita atentatuagatik, desobedientziagatik edota jarkitzeagatik egiten diren atxiloketetan edo indarra erabiltzen denetan jarduteko modua ere. Horrela, jaso da organo judizialari bidali behar zaizkiola titulartasun publikoko nahiz pribatuko kameretan

formativas organizadas por la Academia Vasca de Policía y Emergencias, como de los cursos de formación para el ingreso a las diferentes escalas y categorías, cursos de especialización, cursos de actualización, perfeccionamiento y carrera profesional, dirigidos a las funcionarias y funcionarios de los Cuerpos de Policía del País Vasco con, al menos una formación presencial anual de 400 personas; c) Evaluación o seguimiento, en su caso, de la formación impartida en cualquiera de las modalidades, presencial u online, de la materia de Derechos Humanos en las acciones formativas o cursos de formación organizados por la Academia Vasca de Policía y Emergencias y dirigidos a los funcionarios y funcionarias de los Cuerpo de Policía del País Vasco, que así lo requieran.

Paralelamente, se ha abierto un marco de colaboración a nivel formativo con la organización RIGTHS INTERNACIONAL, a fin de que diseñe un módulo de formación con el fin de incorporarlo al programa correspondiente al curso de ingreso de la XXXI promoción y, posteriormente, impartirlo de manera progresiva a la totalidad de miembros de la Ertzaintza.

2.-A instancias de la Dirección de Ertzaintza se ha procedido a la modificación de las Ordenes de Servicio 20 y 26, referidas ambas al Proceso de la Detención, incluyendo la manera en la que se ha de proceder siempre que exista una detención por atentado, desobediencia y/o resistencia, o bien se haga uso de la fuerza, incorporando la obligatoriedad de remitir al órgano judicial las imágenes que

leudekeen irudiak, esku-hartzea grabatu duten ala ez kontuan izan gabe.

Zehazki, 26. Zerbitzu Aginduak, eginbideen faseari buruzkoak, ezarri du, atxiloketa materialean zuzenean esku hartu duten agenteez gainera, instruktore-taldearen irizpideari jarraituz, jarduketaren garapenean esku hartu duten agenteek ere agertu beharko dutela, eta gertatutako egitateen eta inguruabarren berri emango dute eta atxiloketan izan duten parte-hartzea ere azalduko dute. Barneko arau horretan ezartzen da agenteak banan-banan agertuko direla eta gertatutako egitateak argi eta zehaztasunez azalduko dituztela, garapen kronologikoa mantenduz eta pertsonen, objektuen, lekuen eta gertaeren deskribapen zehatza emanez, atxiloketaren tipo penaleko elementuak kontuan hartuta. Jarraibide horiek bete beharko dira, batez ere, agintaritzaren agenteen aurkako atentatuaren, jarkitzearen edo desobedientziaren ustezko delituekin lotuta instruitzen diren atestatuetan, eta, bereziki, atxiloketan indarra erabili behar izan den kasuetan.

Horrez gainera, adostu da "Euskarri" jarduketan nahitaez jasotzea Datuen Planean indarra erabili den.

pudieran encontrarse en cámaras de titularidad pública o privada, con independencia de que hayan grabado o no la intervención.

En concreto, la Orden de Servicio número 26 "Fase de diligencias", ha venido a establecer que, además del personal policial que haya intervenido directamente en la materialización de la detención, deberán comparecer, también, a criterio del equipo instructor, aquellas y aquellos otros agentes que hayan intervenido en el desarrollo de la actuación, informando de los hechos y circunstancias ocurridas, así como sobre su grado de participación en el transcurso de la detención. Esta norma interna también establece que las y los agentes deberán comparecer separadamente y narrarán los hechos ocurridos con claridad y concisión, manteniendo un desarrollo cronológico y procediendo a la descripción detallada de personas, objetos, lugares y acontecimientos, en atención a los elementos del tipo penal por el cual se ha procedido a la detención. Estas directrices se deberán cumplir sobre todo en los atestados que instruyan en relación con presuntos delitos de atentado, resistencia o desobediencia a los agentes de la autoridad y, en especial, para aquellos casos en los que se haya tenido que recurrir al uso de la fuerza durante la práctica de la detención.

También se ha acordado que en la actuación "Euskarri", se incorpore de manera obligatoria en el Plan de Datos, si se ha hecho o no uso de la fuerza.

Era berean, 2022ko azken lauhilekotik hasita, atxiloketa-prozesuaren eginbideak gauzatzearen arloan indarrean dagoen araudia gogorarazi da Ertzaintzaren gobernantza-egituran aurreikusitako kudeaketa-foroen bileretan.

Así mismo, desde el último cuatrimestre de 2022, en las reuniones de los foros de gestión previstos en la estructura de gobernanza de la Ertzaintza se realiza un recordatorio de la normativa interna vigente en materia de elaboración de diligencias en el proceso de la detención.

3.- Egitate berberen gainean jarduketa judizialak eta diziplinazkoak abiarazten diren kasuetako barneko prozedurak aztertu dira, barneko ikerketa arrazoizko ikerketa-aukera guztiak agortu arte osatzen saiatzeko.
Txostenaren jatorrian dagoen gaian, Segurtasuneko Sailburuordetzak berariaz eskatu dio barne-arazoetarako buruzagitzari beharrezko ikerketak gauza ditzala diziplinazko erantzukizunik egon litekeen argitzeko.

3.- Se ha procedido a la revisión de los procedimientos internos en los supuestos de concurrencia de actuaciones judiciales y disciplinarias sobre los mismos hechos, para procurar completar la investigación interna hasta agotar todas las posibilidades razonables de investigación.
En el asunto que ha originado la emisión del informe, la Viceconsejería de Seguridad, ha requerido expresamente a la Jefatura de asuntos internos para que lleve a cabo las indagaciones que resulten necesarias a fin de depurar cualquier eventual responsabilidad en materia disciplinaria.

4.- Ertzaintzako unitateetako ertzainei kamera indibidualak hornitzeko proiektua bultzatzen jarraitzen da, eta une hauetan, proiektu pilotua amaitu ostean, “bodycam” kamera indibidualak kontratatzeko fasean dago.

4.- Se continúa impulsando el proyecto de dotación de cámaras individuales a las y los ertzainas de las unidades de la Ertzaintza que en esos momentos se encuentra en fase de contratación de las cámaras individuales “bodycams” tras la finalización del proyecto piloto.

5.- Ertzaintzaren gobernantza-egituran aurreikusitako kudeaketa-foroen bileretan adostu da Arartekoaren Gomendio orokorra 7/2001, urriaren 28koa, bertan jasotako gomendioak, zabaltzea, eta, bereziki poliziaren jarduerak

5.- En las reuniones de los foros de gestión previstos en la estructura de gobernanza de la Ertzaintza, se ha acordado difundir las recomendaciones del Ararteko contenidas en su “Recomendación general 7/2001, de 28 de octubre”, en particular el apartado correspondiente a la necesidad de establecer

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

gainbegiratzeko mekanismoak ezartzeko eta horiek betetzea sustatzeko premiari buruzko atala.

mecanismos de supervisión de las prácticas policiales y promover su cumplimiento.

Adeitasunez,

Atentamente,

Sinadura elektronikoaren datan
En la fecha de la firma electrónica

2022.12.29 10:27:16 +01'00'

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Lehenengo Lehendakariordea eta Segurtasuneko Sailburua
Eusko Jaurlaritza

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

2022 ABE. DIC. 29

| SARRERA | IRTEERA |
|---|---|
| Zk. | Zk. 588288 |

**JUAN LUIS IBARRA ROBLES**
**Euskadiko Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordearen Presidentea**
**Presidente Comisión Control y Transparencia de la Policía del País Vasco**